## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## 2761

AGINDUA, 2006ko maiatzaren 3koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udalaren jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa arautzen duena.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusita dago toki-korporazioen lankidetza eta parte-hartzea hezkuntza arloan.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian dago ezarrita toki-korporazioen eta Hezkuntza Administrazioaren arteko lankidetza ikastetxeak sortu, eraiki eta mantentzeko, beti ere indarrean dagoen legediari jarraiki.

Bestalde, lankidetzari esker, lehendik zeuden baliabide publikoak optimizatu ahal izan dira, bai eta administrazioak egindako ahalegin eta jarduerei ahalik eta etekin gehien atera ere.

Beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak komenigarritzat jotzen du udalaren jabetzako zentroetan obrak egiteko jarduerak sustatzea, horrela hezkuntzaren hobekuntzari lagunduko baitio.

Ondorioz, honako hau,

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

Agindu honen xedea da hezkuntza-administrazioaren menpeko ikastetxeak dauden udalaren jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantzaketa arautzea.

Agindu honen ondorioetarako, finantzagai diren obrak honako hauek izango dira:

a) Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legeko 123. artikuluaren 3. eta 4. paragrafoetan aurreikusitakoak, hau da, lehendik dagoen ondasun higiezin batean egindako zabaltze, hobetze, eraberritze, leku-egokitze, moldatze edo indartze obrak, baita ondasun horretan ezustez edo ezbeharrez sor daitezkeen kalteak konpontzeko obrak ere. Konponketak gehienbat egitura eta erresistentziaren gainekoak direnean konponketa handitzat kalifikatuko dira eta, alderantziz denean, konponketa bakuntzat.

b) Abenduaren 5eko 1537/2003 Errege Dekretua betetzea helburu dutenak, hor ezartzen baitira araubide

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## 2761

ORDEN de 3 de mayo de 2006, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regula la financiación de los gastos destinados para la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la administración educativa.

La Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, prevé principalmente a través de la disposición adicional decimoséptima, la cooperación y la participación de las corporaciones locales en el ámbito educativo.

La Ley 1/1993, de 19 de febrero, de Escuela Pública Vasca, en la Disposición Adicional Novena, establece la cooperación de las corporaciones locales con la administración educativa en la creación, construcción y mantenimiento de centros públicos docentes, en el marco de lo establecido por la legislación vigente.

Esta cooperación ha permitido la optimización de los recursos públicos existentes y la rentabilización al máximo de los esfuerzos y actuaciones realizadas por cada Administración.

Por consiguiente, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación estima conveniente incentivar las actuaciones a desarrollar para la ejecución de obras en centros de propiedad municipal, coadyuvando de esta forma a la mejora de la enseñanza.

En su virtud,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

El objeto de esta orden es regular la financiación de los gastos destinados para la ejecución de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la administración educativa.

A los efectos de esta orden, se consideran obras de adecuación susceptibles de ser financiadas:

a) Las contempladas en el artículo 123 apartados 3 y 4 de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, es decir obras de ampliación, mejora, modernización, adaptación, adecuación o refuerzo de un bien inmueble ya existente, así como las obras de reparación de los daños producidos en el mismo por causas fortuitas o accidentales. Cuando afecten fundamentalmente a la estructura y resistencia tendrán la calificación de gran reparación y, en caso contrario, de reparación simple.

b) Las que tengan por objeto el cumplimiento del Real Decreto 1537/2003, de 5 de diciembre, por el que

orokorreko irakaskuntza ematen duten zentroen gutxieneko baldintzak.

c) Irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea betetzera bideratutakoak.

d) Jolastokiak sortu edo hobetzeko xedea dutenak, eta baita ikasgelak sortu edo eraberritzeko direnak ere.

Eraikinaren mantentze-lan hutsa ez da finantzagarria izango.

Obra horiek 2005eko irailaren 1aren ondoren hasitakoak izango dira edo 2006ko abenduaren 31 baino lehen hasiko dira eta 2007ko irailaren 30a baino lehen bukatu beharko dira.

Obrak bukatzeko epeari dagokionez, luzapena justifikatzeko arrazoiak daudenean eta udal onuradunak epea bukatu baino lehen eskaera idatzia egin ondoren, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak epea luzatzea onartu ahal izango du, horretarako emandako ebazpen baten bitartez, luzapen hori gehienez ere bi hilabetekoa izango da.

*2. artikulua.*– Finantzaketa.

Agindu honetako diru-laguntzetarako zazpi milioi seiehun eta laurogeita hamahiru mila (7.693.000,00) euro erabiliko dira, honela banatuta: 2006. urterako milioi bat ehun eta berrogeita hamahiru mila bederatziehun eta berrogeita hamar (1.153.950,00) euroko ordainketa-kreditua eta 2007. urterako sei milioi bostehun eta hogeita hemeretzi mila eta berrogeita hamar (6.539.050,00) euroko konpromiso-kreditua, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako kontusailetik.

Artikulu honetan kontsignatutako guztirako zenbatekoa aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen kopuru osoa kontuan izanda, aurrekontuan erabilgarri dagoen zenbatekoaren arabera eta laguntzak ebatzi aurretik. Hori gertatuz gero, horren berri emango da Administrazio eta Zerbitzu sailburuordearen ebazpenaren bidez.

*3. artikulua.*– Erakundeak.

1.– Deialdi honen onuradun izan daitezke hezkuntza-sistemaren menpeko ikastetxeak dauden udalaren jabetzako eraikinetan obrak egiteko proposamenak aurkezten dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, baldin eta obrak 1. artikuluan jasotakoak badira.

2.– Udalak bere gain hartuko ditu proiektu osoa idatzi, obrak esleitu, obren esleipena eta horien zuzendaritza fakultatiboaren ardura. Horiez gain, eraikuntzalanetan Segurtasun eta Osasun araudia betetzen dela begiratu beharko du.

*4. artikulua.*– Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa.

se establecen los requisitos mínimos de los centros que impartan enseñanzas escolares de régimen general.

c) Las encaminadas al cumplimiento de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la promoción de accesibilidad.

d) Las que tengan por objeto la creación o mejora de las zonas de recreo y las que contemplen la creación o reforma de aulas.

No se considerarán financiables las obras de mero mantenimiento del edificio.

Dichas obras se habrán iniciado con posterioridad al 1 de septiembre de 2005 o se iniciarán antes del 31 de diciembre de 2006 y deberán estar finalizadas el 30 de septiembre de 2007.

En relación con el indicado plazo de finalización, cuando concurran causas que lo justifiquen, previa solicitud escrita del ayuntamiento beneficiario efectuada con anterioridad a su vencimiento, el Viceconsejero de Administración y Servicios podrá, en resolución dictada al efecto, conceder una ampliación del mismo que en ningún caso será superior a dos meses.

*Artículo 2.*– Financiación.

Se destinan al objeto de las ayudas a las que se refiere la presente orden siete millones seiscientos noventa y tres mil (7.693.000,00) euros, divididos en un crédito de pago para el año 2006 de un millón ciento cincuenta y tres mil novecientos cincuenta (1.153.950,00) euros y de un crédito compromiso para el año 2007 de seis millones quinientos treinta y nueve mil cincuenta (6.539.050,00) euros, con cargo a la partida presupuestaria establecida al efecto en los Presupuestos Generales de la CAPV.

El importe global consignado en este artículo podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Administración y Servicios.

*Artículo 3.*– Entidades.

1.– Podrán acogerse a esta convocatoria aquellos ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco que presenten propuestas de obras en edificios de propiedad municipal en los que funcionan centros docentes dependientes de la administración educativa, siempre que las obras sean de las comprendidas en el artículo 1.

2.– Será responsabilidad del ayuntamiento, la redacción del proyecto completo, la adjudicación de las obras y la dirección facultativa de las mismas, incluyendo el cumplimiento de la normativa sobre Seguridad y Salud en las construcciones.

*Artículo 4.*– Importe financiable.

1.– Bi administrazioek hartuko dute beren gain obren finantzaketa; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskarian aurkeztutako lanaren zenbatekoaren % 60 emango du.

2.– Obraren kostuen artean ez dira sartuko proiektuaren idazketaren eta obra zuzendaritzaren ordainsariak, azpikontratatu edo udal-korporazioz kanpoko bitartekoen bidez exekutatzen direnean izan ezik. Horrelakoetan ere, aurreko atalean finkatutako proportzioan banatuko dira kostuak.

Proiektuaren idazketa gastuek ezin izango dute finantzaketa autonomoa jaso dagozkion obrak exekutatzen ez badira.

*5. artikulua.*– Eskabideak.

1.– Diru-laguntzak eskatzeko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

2.– Eskabideak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan aurkeztu beharko dira, behar bezala beteta eta agindu honi atxikita dagoen ereduarekin bat etorri beharko dute.

Bestalde, aukera egongo da eskaera aurkeztu ahal izateko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan -4/1999 Legeak aldatutakoa— ezarritako edozein eratan.

3.– Ikastetxe baterako baino gehiagorako finantzaketa eskatu nahi duten udalek agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte ikastetxe bakoitzerako.

*6. artikulua.*– Agiriak.

Eskabidearekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Proiekturik behar ez duten obrak badira: aurrekontu xehatua eta argibide-oroitidazkia, teknikari aditu batek sinatuta.

Proiektua behar duten obrak badira: exekuzio-proiektua, dagokion elkargoaren edo organo aginpidedunaren oniritziarekin. Oinarrizko proiektua ere aurkez daiteke. Horrela bada, eskatzaileak oniritzitako exekuzio-proiektua aurkeztu beharko du. Proiektu hori ez da oinarrizkoa baino garestiagoa izango eta eskabidea aurkeztu eta bi hilabeteko epean aurkeztu beharko da.

b) Aurkeztu den proiektua edo aurrekontua onartzen duen udal-organo aginpidedunaren akordioa aurkeztu beharko da betiere.

*7. artikulua.*– Eskarien azterketa.

1.– Balorazio-batzorde batek egingo du eskarien behin betiko aukeraketa. Hona hemen batzordeko partaideak:

1.– La financiación de las obras se distribuirá entre ambas Administraciones, financiándose por parte del Departamento de Educación, Universidades e Investigación el 60% del importe de la obra presentado en la solicitud.

2.– En los costes de la obra no se incluirán los honorarios de redacción del proyecto y dirección de obra, salvo que dicha redacción y dirección de obra se subcontraten o se ejecuten con medios externos al propio ayuntamiento, distribuyéndose los costes, en este caso, en la misma proporción establecida en el apartado anterior.

En ningún caso serán objeto de financiación autónoma los gastos de redacción del proyecto si no se ejecutan las obras correspondientes.

*Artículo 5.*– Solicitudes.

1.– El plazo de presentación de las solicitudes para acogerse a esta convocatoria será de 1 mes a partir del día siguiente al de la fecha de publicación de esta orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Las solicitudes deberán presentarse en las Delegaciones Territoriales de Educación, debidamente cumplimentadas, ajustándose al modelo que figura en el anexo a la presente orden.

Asimismo, las solicitudes podrán presentarse en las demás formas indicadas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificado por la Ley 4/1999.

3.– Aquellos ayuntamientos que deseen solicitar financiación para más de un centro escolar, deberán presentar la documentación de forma individualizada por cada uno de ellos.

*Artículo 6.*– Documentación.

Las solicitudes que se presenten, deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

a) Para las obras que no precisen proyecto: presupuesto detallado y memoria explicativa, firmado por técnico competente.

Para las obras que lo precisen: proyecto de ejecución visado por el colegio profesional correspondiente. También se podrá presentar proyecto básico. En este caso el solicitante deberá presentar el correspondiente proyecto de ejecución visado, que no podrá ser de un importe superior al del básico, en el plazo máximo de dos meses, a contar desde la finalización del plazo de presentación de la solicitud.

b) En todo caso se deberá adjuntar el acuerdo del órgano municipal competente aprobando el proyecto o presupuesto presentado.

*Artículo 7.*– Evaluación de las solicitudes.

1.– La selección definitiva de las solicitudes se llevará a cabo por una Comisión de Valoración compuesta por los siguientes miembros:

– Baliabide Material, Informatika eta Antolamendu zuzendaria; batzordeburua izango da.

– Ikastetxeen zuzendaria.

– Lurralde-ordezkariak.

– Eraikuntzen Unitateko teknikari bat; idazkaria izango da.

2.– Saileko lurralde-ordezkaritzetako unitate-teknikoek Balorazio Batzordera bidaliko dituzte bertan jasotako eskabide guztiak, behar bezala baliozkotuta. Horrekin batera, egin beharrekoaren premia, eraikinaren eta instalazioen segurtasuna eta hondatze-mailari buruzko txostenak aurkeztu behar dira.

Txosten horiek aztertuko ditu balorazio-batzordeak eta lehentasun hurrenkera bat ezartzeko, honako irizpideen arabera:

– Egin beharrekoaren premia: % 50a arte.

– Eraikinaren eta instalazioen segurtasunaren balorazioa: % 30a arte.

– Hondatze-maila: % 20ra arte.

3.– Deialdi honetan aurreikusitako aurrekontu zuzkidura nahikoa izango ez balitz aurkeztutako eskari guztiak betetzeko, balorazio-batzordeak lehentasun hurrenkera finkatuko luke hezkuntzako premien arabera, 2. artikuluan jasotako eta 2. puntuan jasotzen diren balorazioaren arabera.

*8. artikulua.*– Bateragarritasuna.

Deialdi honen xede diren diru-laguntzak eta bestelako finantzaketa-iturrietatik lortutakoak bateragarriak izango dira. Baina diru-laguntza eman duten entitateetatik jasotako laguntza obra beraren gastua baino handiagoa bada, diferentziari dagokion kopurua kendu egingo zaio agindu honi jarraituz emandako diru-laguntzari.

*9. artikulua.*– Udalen betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren diru-laguntzen udal onuradunek honako betebehar hauek bete beharko dituzte betiere:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Horretarako, diru-laguntza eman zaiola jakinarazten duen Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria argitaratu denetik hamabost eguneko epearen barruan erakundeak uko egiten ez badio idatziz eta berariaz laguntzari, onartu duela joko da.

b) Diru-laguntza eman den xederako erabiltzea.

c) Diru-laguntza hau dela eta, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak euren egitekoak burutuz eska dezaketen informazioa eskuratu beharko die onuradunak.

– El Director de Recursos Materiales, Sistemas Informáticos y Organización que actuará como presidente.

– El Director de Centros Escolares.

– Los Delegados Territoriales.

– Un Técnico de la Unidad de Construcciones que actuará como Secretario.

2.– Las Unidades Técnicas de las Delegaciones Territoriales, elevarán a la Comisión de Valoración las solicitudes presentadas y debidamente validadas, junto a los correspondientes informes sobre la urgencia de las actuaciones, la seguridad del edificio y de las instalaciones, y el grado de deterioro.

La Comisión de Valoración estudiará dichos informes y establecerá un orden de prioridades valorando según los siguientes criterios:

– Urgencia de la actuación: hasta el 50%.

– Valoración de la seguridad del edificio y de las instalaciones: hasta el 30%.

– Grado de deterioro: hasta el 20%.

3.– En el caso de que la dotación presupuestaria prevista para esta convocatoria resultase insuficiente para atender todas las solicitudes presentadas, se establecerá por la Comisión de Valoración hasta el agotamiento del crédito presupuestado y consignado en el artículo 2, un orden de prioridades en razón de las valoraciones del punto 2.

*Artículo 8.*– Compatibilidad.

La financiación objeto de esta convocatoria será compatible con la obtención de cualquier otra fuente de financiación. En caso de las obras objeto de esta convocatoria sean subvencionadas por las distintas Administraciones en un importe superior a su coste de ejecución, se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso el importe de la financiación concedida de acuerdo con la presente orden.

*Artículo 9.*– Obligaciones de los ayuntamientos.

Los ayuntamientos beneficiarios de las ayudas económicas reguladas en la presente orden, deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la ayuda económica concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la resolución de la convocatoria, la entidad correspondiente no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la ayuda económica para el concreto destino para el que ha sido otorgada.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de la ayuda económica otorgada con cargo a esta convocatoria.

d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari obraren kartel deskribatzaile bat jartzen erraztea.

*10. artikulua.*– Ebazpena.

1.– Balorazio-batzordeak Administrazio eta Zerbitzu sailburuordeari diru-laguntzak erabakitzen dituen ebazpenaren proposamena aurkeztuko dio, eta honek lau hileko epea izango du eskariak aurkezteko epeari amaiera ematen zaionetik ebazpena emateko. Ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

Berariazko ebazpenik jakinarazten ez bada aipatutako epearen barruan, eskariak ez direla onartu jo beharko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan finkatutakoaren ondorioetarako, lege horrek administrazioari berariaz ebazteko ezartzen dion betekizunaren kaltetan izan gabe.

2.– Ebazpenaren aurka gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hilabeteko epearen barruan, betiere 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoari jarraituz.

*11. artikulua.*– Finantzaketa-erregimena.

1.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokion zenbatekoa bi epetan ordainduko zaio udalari: % 15 deialdiaren ebazpenarekin batera, 9. artikuluko a) idatz-zatian ageri den epea tartean ukorik ez dela igaro ondoren, eta gainerako % 85a egindako inbertsioa justifikatu ondoren. Horretarako dagokion lurralde-ordezkaritzan honako hauek aurkeztu beharko dira: zuzendaritzak sinatutako azken obra-ziurtagiria edo obra bukatutzat ematen duen udal-agiria, diru-kopuru eta guzti, eta horrela badagokio, proiektuen idazketari dagozkion ordainsarien minutak, helburu bererako bestelako finantzabideak jaso izanaren (edo ez izanaren) aitorpenarekin batera, agindu honetako 8. artikuluan aurreikusita bezala, behar izanez gero zenbatekoak azalduta.

2.– Egiaztagiri horiek gehienez ere hilabeteko epearen barruan aurkeztu behar dira finantzatutako lanari amaiera ematen zaionetik, eta 2007ko urriaren 30a baino lehen betiere.

Era berean, agindu honetako 1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera luzapena onartu zaien obren kasuan, gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko dira frogagiriak, obra bukatzen denetik aurrera, eta nolanahi ere 2007ko abenduaren 30a baino lehen.

3.– Udalak aurkeztutako frogagirien ondorioz egiaztatzen bada obren azken eta benetako kostua, atal guztiak harturik, laguntza eskatzeko unean aurkeztutako

d) Facilitar al Departamento de Educación, Universidades e Investigación la instalación de un cartel descriptivo de la obra.

*Artículo 10.*– Resolución.

1.– La Comisión de Valoración elevará propuesta de resolución al Viceconsejero de Administración y Servicios, quien dictará dicha resolución dentro del plazo de cuatro meses a contar desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes. Dicha resolución será notificada a los interesados a través de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En el caso de que no se notifique la resolución expresa en el plazo indicado, deberán entenderse desestimadas las solicitudes, a los efectos de lo establecido en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación que la citada Ley impone a la Administración de resolver expresamente.

2.– Contra dicha resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes, contado a partir de la publicación de la resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 114 y siguientes de la citada Ley 30/1992.

*Artículo 11.*– Régimen de financiación.

1.– El importe correspondiente al Departamento de Educación, Universidades e Investigación, se efectuará al ayuntamiento respectivo en dos plazos: el 15% a la resolución de la convocatoria una vez transcurrido el plazo que figura en el artículo 9, apartado a), sin haber mediado renuncia y el 85% restante tras la justificación de la inversión realizada mediante la presentación en la Delegación Territorial correspondiente de la certificación final de la obra firmada por la dirección o un certificado municipal en el que da por finalizada la obra con su importe correspondiente, y en su caso las minutas de honorarios correspondientes a la redacción de proyectos, junto con la declaración relativa a la percepción o no de otras fuentes de financiación obtenidas para el mismo fin, tal y como se prevé en el artículo 8 de esta orden, cuantificándose en su caso.

2.– La expresada documentación justificativa deberá presentarse en el plazo máximo de 1 mes a partir de la finalización de la obra financiada y en todo caso antes del 30 de octubre de 2007.

Así mismo para las obras a las que, de conformidad con lo previsto en el artículo 1 de la presente orden, se les haya concedido prórroga, la documentación justificativa deberá presentarse en el plazo máximo de 1 mes a partir de su finalización y en todo caso antes del 30 de diciembre de 2007.

3.– Si como consecuencia de la justificación presentada por el ayuntamiento se comprobase que el costo final efectivo de las obras, por todos los conceptos, fue-

aurrekontua (laguntza kalkulatzeko erabilitakoa) baino txikiagoa dela, laguntza honen kopurua aldatu egingo da, azkenean emango den benetako laguntza azken kostuarekin alderatu ondoren, agindu honetako 4. artikuluan adierazitako ehunekoa gainditu ez dezan.

*12. artikulua.–* Egiaztapenak.

Hezkuntza Sailak obrak gainbegiratu, ikuskatu eta egiaztatu ahal izango ditu, eta, horrela, diru-laguntzari buruzko arauak eta baldintzak behar bezala betetzen direla ziurtatu.

*13. artikulua.–* Ez-betetzeak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz, diru-laguntzaren onuradunak agindu honetan jasotako baldintza eta xedeak betetzen ez baditu, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat jo ahal izango da eta, halakorik gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta haiei dagozkien interes legalak itzuli egin beharko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Agindu honetan jaso ez diren prozedurazko alderdiei azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotakoa ezarriko zaie.

***Bigarrena.–*** Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 3a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

se menor que el presupuesto presentado en su día al solicitar la ayuda, sobre el que se calculo la misma, se procederá a modificar su importe de modo que la ayuda efectiva finalmente resultante no supere, respecto del costo final, el porcentaje expresado en el artículo 4 de la presente orden.

*Artículo 12.–* Comprobaciones.

El Departamento de Educación podrá realizar las supervisiones, inspecciones y comprobaciones que considere necesarias para asegurar el cumplimiento de las normas y condiciones de la financiación asignada.

*Artículo 13.–* Incumplimientos.

La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaron el otorgamiento de la financiación, dará lugar, de conformidad con la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, Texto Refundido y aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y el Real Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco, las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** En todos los aspectos procedimentales no previstos en la presente orden serán de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

***Segunda.–*** La presente orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de mayo de 2006.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## ERANSKINA

## HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAREN MENPEKO IKASTETXEAK DAUDEN UDALAREN JABETZAKO ERAIKINETAN OBRAK EGITEKO GASTUEN FINANTZAKETARAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO ORRIA

Udalerriaren izena:

Alkate udalburuaren izen-abizenak:

Diru-laguntza zein obrarentzat eskatzen den:

Ikastetxe publikoaren izena:

Obraren deskribapena:

Obraren zenbatekoa guztira:

Proiektuaren idazketa eta obraren zuzendaritzaren ordainsariak (4. artikuluaren arabera bidezkoa bada):

Aurkezten diren agiriak:
(Erantsitako dokumentazioa X batez markatu)

1.– Obraren dokumentazio teknikoa:
1.1.– Proiekturik behar ez duten obrak:

☐ Aurrekontu xehatua eta argibide-oroitidazkia, teknikari aditu batek sinatuta.

1.2.– Proiektua behar duten obrak:

☐ Profesionalen elkargoak oniritzitako exekuzio-proiektua.

☐ Oinarrizko proiektua. Bi hilabeteko epean profesionalen elkargoak oniritzitako exekuzio-proiektua aurkeztu behar da.

2.– Udal-organo aginpidedunaren akordioa eta bertan jasoko da:

☐ Aurkeztutako proiektu eta aurrekontuaren onarpena

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren, 2006ko.......................ren......ko Aginduari jarraituz, ikastetxe publikoan obrak egiteko eskatutako diru-laguntza ematea eskatzen du, eta hitz ematen du gai honi buruz agindu horretan jasotako guztia beteko duela.

, 2006ko ren (e)a

(Sinadura)

*ANEXO*

*SOLICITUD DE AYUDA PARA LA FINANCIACIÓN DE GASTOS DESTINADOS A LA EJECUCIÓN DE OBRAS EN EDIFICIOS DE PROPIEDAD MUNICIPAL EN LOS QUE FUNCIONAN CENTROS DOCENTES DEPENDIENTES DE LA ADMINISTRACIÓN EDUCATIVA*

*Denominación del municipio:*

*Nombre y apellidos del Alcalde-Presidente:*

*Obras para las que se solicita la ayuda:*

*Denominación del centro público:*

*Descripción de la obra:*

*Importe total de la obra:*

*Honorarios de redacción del proyecto y dirección de obra (si procede según el artículo 4):*

*Documentación que se adjunta:*
*(Marcar con una «X» la documentación presentada)*

*1.– Documentación técnica de la obra:*
*1.1.– Obras que no precisan proyecto:*
- ☐ *Presupuesto detallado y memoria explicativa firmado por técnico competente.*

*1.2.– Obras que precisan proyecto:*
- ☐ *Proyecto de ejecución visado por el Colegio Profesional correspondiente.*
- ☐ *Proyecto básico. En el plazo de dos meses se deberá presentar el proyecto de ejecución visado por el Colegio Profesional.*

*2.– Acuerdo del órgano municipal competente en el que conste:*
- ☐ *Aprobación del proyecto o presupuesto presentado*

*De acuerdo con la Orden de ........de .................de 2006, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, solicita le sea concedida ayuda para la realización de las obras citadas, comprometiéndose a cumplir y observar lo dispuesto en esta orden.*

*En , a de de 2006*

*(Firma)*